

Derioko Udalaren 2025eko urriaren 6ko 2025-0576 Dekretuaren laburpena. Dekretu horren bidez, kirolarien bidaiak eta dietak lehia lehiakorragatik emateko deialdia onartu zen.

BDNS (Identif.):

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa. Onuradunak:

Diru-laguntzaren xede den kirol-denboraldi bakoitzaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen Derion erroldatutako edozein pertsona fisikok jaso ahal izango du laguntza hau, baldin eta, aplikatzekoa den araudian ezarritako baldintzez gain, diru-laguntzaren xede den lehiaketan parte hartu izana egiaztatzeko baldintza betetzen badu.

Bigarrena. Helburua:

Deialdi honen helburua da EAEtik kanpo lehiaketa federatuko bidaiak eta dietak egiteak Derion erroldatutako pertsonen eragiten dizkien gastuak finantzatzea, Derioko kirolarien artean kirol-jarduera federatua sustatzeko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2024ko urriaren 24an argitaratutako oinarriak.

www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2024/10/BAO-2024a206.pdf

Laugarrena. Zenbatekoa:

2025eko ekitaldirako laguntza hauetarako diru-zuzkidura 4.000 eurokoa izango da gehienez, eta laguntzaren zenbatekoa benetan justifikatutako gastuaren %50 izango da, kirolari bakoitzeko 400 euroko gehieneko mugarekin, aurrekontu-partidan esleitutako kredituaren mugaraino. Eskaera gehiegi dagoelako aurrekontuko kreditua ez balitz nahikoa %50 hori ordaintzeko, kreditua kirolari guztien artean banatuko da, onuradun guztiek behar bezala justifikatutako gastuaren ehuneko berdina jaso dezaten.

Aurrekontu-partidan esleitutako kredituaren mugara iristen ez bada, kirolari bakoitzeko 400 euroko gehieneko zenbatekoa ez da aplikatuko honako kasu hauetan: Espainiako txapelketan dagokien modalitatean domina lortu duten kirolariak. Baldintza hori betetzen duten pertsonen beren autonomia-erkidegoko organo eskudunak edo Kirol Kontseilu Gorenak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dute beren kondizioa.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea 2025eko urriaren 20a arte izango da.

Derio, 2025ko urriaren 6a.

Alkatea, Esther Apraiz